

JUAN CARLOS ERREGEAREN BIDE GABEKERIA

Erregeak bere Gabonetako mezuan terrorismoaren aurka hitz gogorrak erabiliz, honako hau ere esan zuen: «a quienes hacen correr la sangre de los españoles víctimas de sus atentados criminales, y también a quienes los amparan, disculpan o justifican, cualesquiera que sean sus posiciones, políticas, sociales o religiosas».

Erregeren hitz hauek, komunikabide gehienek, Euskadiko Gotzainen Pastoralaren aurkakotzat jo zituzten: «El rey condenó en su mensaje la pastoral de los obispos» (Deia), «referencia a la reciente pastoral de los obispos vascos» (El País), «Los obispos vascos deben tomar nota: El rey lo ha dicho de forma clara y rotunda» (Cambio 16), eta ABC-k Euskal Gotzainak aipatuz zera dio: «a buen entendedor pocas palabras», etab.

Erregek berak horrela ulertu ote zuen? Beren-beregi eta apropos esan zituen hitzak ote dira? Dena dela, okerra hor dago: berak gotzainak zuzenki salatu ez baditu ere, komunikabideek eta gainerako gehienek hala ulertu zuten; eta berak ere jakin behar zuen horrenbesterik, inozoa ez bada.

Erdi demokrata, erdi faszista den estatu honetan jainkotzat jarri digute erregea eta beste inork ez du hitz egiteko edo eritziak emateko eskubiderik, zapaldua eta iraindua izan gabe.

Nor da errege hori bake bila, zuzenbidez, maitasunez, ado-

retsu, argi eta egiatzko bidetik euren zeregina betetzen ari diren gotzainei zitalkeria hori aurpegira botatzeko?

Gizon publikoa baino lehen eta horren gainetik ez al da kristaua erregea? Euskal Gotzainen izen ona Espainian zehar zirindu eta bere kristau-morala lehen bezain garbi geratzen ote da, ba?

Bakearen eta zuzenbidearen alde hain zintzo eta jator ari diren gotzainenganako begirunerik agertzen ez duen erregea ez da niretzat errespetagarria.

Nik ez dut horrelako erregerik nahi.

Barregarria dirudi errege hori Bakearen Nobel sarirako hautagai izendatzea, zintzotasun osoz bakearen bila diharduten Euskal Gotzainei ahoa itxi nahirik, begirunerik gabeko hitzak erabili dituenean.

Noren bakea nahi dugu erregeak?

Nolako bakea?

Espainiaren neurriko bakea? lehenago «democracia a la española» esaten zen bezala, bakea ere «a la española»? Bakea erraza da bai aho-mihietan erabiltzen, baina egiatzko bakea eraikitzen da zaila.

Militarismo giroan bizi den errege horri hau esango nioke: irakur dezala Euskal Gotzainen pastoralak; beragana dezala osorik, eta inoiz bakezale izan nahi balu, jo dezala aurrera pastoral horren bidetik. Hauxe izan daiteke haien izen onaren aurka egingakoa garbitzeko erarik onena.